

REBECCA GORDON NESBITT

Artea hezkuntza gisa

Hamalau urte. Zein izan daiteke inoren jakintza-maila hamalau urterekin? Adin horrekin, gogoan dut, egun guztian ibiltzen nintzen zuhaitzetara igotzen eta lurretik herrestan ibiltzen belauniko, eta atzematen saiatzen ginen jakintza-mota bakarra gure baserritar-belarrietara iristen ziren pop abestien atzetik egon zitekeen esanahia besterik ez zen. Egun haietan –eta duela hogeit hamar urteko tartean ari naiz– informazio sakonen bat ezagutu nahi banuen eta erantzun saihestezin eta biribilak etxeko nagusien ezpainetan huts egiten zidanean, haurren entziklopediako aleetara jotzen nuen, zeinen bizkar puskatuak pausaturik baitzeuden gure ikasgelako leiho irtenaren aurka.

Anakronismo hautseztatu bilakaturik, egun hobeen argi biziaren pean koloretxarturiko euren telazko azal urdinekin, urrezko lumatza tipografikoa harro jartzen zuten agerian. Nire ikerketa-alorrari zegozkion erromatar zifren bilaketari heldurik, liburuetako bat bere aberkideengandik erreskatatzen nuen, eta segidan erdi irekitako azal gogorak zabaltzeari ekiten nion, sitsen hegaletan kanferraren modura jitoan flotatzen duen musketa gozoa dastatzeko prest. Gehienetan bila ari nintzen atalak huts egiten zidan (hiru, bost edo zazpi urte lehenago bilaketa berbera egokitu zitzaion nebaren batek guraizez ebakita), zeinak aukera bakarra uzten zidan: eskolan amaitutakoan hirian geratzea eta, gure herrira zihoan hurrengo autobusa hartzeko itxaron beharreko hiru orduak betetzeko udal liburutegira txango txiki bat egitea. Arrain-dendatik beheraxeago, oinordetza-aztarna oro ezabaturik zeukan garaiko eraiki batean, tokiko nekazaritza-erkidegoaren gurariz eta lagapenez urri hornituriko apalategiak aztertzen nituen, irakasleren batek bere ikasleak behar besteko inizatibaz akreditatuko zituela desiratuz, delako izenburu nabarmenaren isilpeko eskurapena bermatzeko bezainbeste.

Bi hamarkada labur igaro dira eta dena aldatu da. Gu, bazenik ere sekula bururatzera ere heldu ez ginen baino informazio gehiago daukate eskura gaur egungo nerabeek, eta beharrezkoa duten edozer aurki dezakete hitz bakan batzuk tekletuz eta botoiari sakatuz. Mende luzeetako historia, eta batek bere bizitza guztian irakur ditzakeenak baino askoz liburu gehiago, paragrafo pixeleztatu bidez izan dira destilatutako, norbaitek noiz topatuko zain. Baina, batzuetan nire buruari galde egiten diot gazteek ezer egingo ote duten ezagutza eta jakintza aditzera besterik ematen ez duten iritzi horiekin, egitate zatikatu horiekin, historia-puska horiekin. Nola dakite zer bilatu behar duten, zer onartu behar duten eta zer bota behar duten atzera? Nolatan izan daitezke munduaren gaineko ikuspegi bat garatzeko gai, bit akustikoz osatutako puzzle baten pieza bilduz? Bueno bada, joan den asteazken goizean galdera horiei zegozkien hainbat erantzun aurkitu nituen.

Galeria normalki hutsik egoten da lanegunetan, arteaz dakiten eta asteburuetan astialdiko beste jarduera batzuei loturik bisitaldiak koordinatu ohi dituzten pertsona bakanak salbu. Beraz, ordezkaritza honen etorrerak –lehen begiratuan inguruetako Ikastetxeren batek antolatutako bidaia baten zati zirudienak– nire jakin-mina iratzarri zuen. Taldea, hamalau bat urteko hamabiren ikasleak osatua, lasai sartu zen, nire garaikoek eguneroko hezkuntza formaletik aske geratuta erakutsiko zuketenean ezin desegokikeriarik egin gabe eta halako giro sofistikatua batean agerian jarriko zuketenean baldarkeriarik erakutsi gabe. Nire idazmahai aurretik igarotzen ziren bitartean, gazteak aztertu nituen, eta ezagutza ofiziala zaintzeko helburuz finkatutako erakundeen

poltsikoetan ageri ohi diren logo horietako baten arrastorik txikiena ere ezin izan nuen atzeman haien jantzi desuniformatuetan.

Niganako mesfidantzarik har ez zezaten ahaleginduz, galeriarako haien ibilaldi deliberatuan jarraitu nien eta hormaren kontra eseri nintzen, alboetatik ikusten nuelarik aurreneko bi eserleku-ilaretan nola batzen ziren, elkarrekiko hurbiltasun hartaz poz-pozik. Denak eseri bezain laster, lehendabiziko dokumental dardartsua bobinatzen hasi zen eta Telebistaren belaunaldiko mandatariak murgilarazi zituen irudi- eta soinu-mundu batean. Proiektagailu isilak bere izpi digitalak jaurti zituen pantailaren aurka eta bere lekukoak baino handiagoa ez zen mutil kozkor bat jauzika hasi zen aurrietan zegoen hiri baten hondakinen artean. Ikasleen alboko eserlekuetatik, argi-itzalez inguratutako haien begitartetxoak ikus nitzakeen, norbaitek behatzen zituelakoaz haien arretaren gai bezain ezjakinak. Ahots leun batek Anwar gaztearen egoera larria azaldu zien; haren etxea suntsitu zuen gatazkan umezurtz gelditurik, egunero bizia arriskuan jartzen zuen janari bila joateko. Eta, ilunantz pean, ohar-koadernoan jira-bira bereiz nezakeen, begiradak apurtzera iritsi gabe, kontakizun paralelo honek aurrera jarraitzen zuen bitartean.

Film horren egile eta artista aste batzuk lehenago galerian izan zen, eserleku-ilarak ongi jartzen eta kolorearen eta soinuaren saturazioa egiaztatzen. Lanean ari zen bitartean, bere motibazioei buruz hitz egin zidan, botereak finkatutako komunikabideen kontrako hitz zorrotzak tu eginez, haien alderdikeria eta politika zirela eta. Emakume apala berez, galerian erakutsi zuten beste batzuen harrotasun hutsaletik urrun, bazirudien bere burua ikusten zuela helarazten zuen informazioaren eroale sinple baten gisa. Zintzotasunaz eta zehatz ikusi zuenari buruzko erreportajeaz kezkatutik soil-soilik, bere betebehartzat jotzen zuen egia etxera ekartzea, egia zen bezala ikus genezan, geure haragian bizi izandako esperientzia balitz bezala. Eta haren mezuak gogo eta borondate oneko ikusle horiengan barneratuak zirela ikustean, bere proiektua arrakastaz burutu zuela ulertu nuen.

Horretaz pentsatzen nuen bitartean, burrunba handi batek durundi egin zuen galeriako espazio mugatuaren inguruan. Horrek azterketa kolektibo bat egitera behartu gintuen. Pantailan, gugandik oso hurbil, altzairuzko jaurtigai batek gaztearen haragia erre zuen, meteorito batena bezalako kraterra –zirimolaturiko harearen biltoki– sortaraziz. Arrakala abstraktu bat odolerraino ireki zen. Geure auzitegiko mediku-ezaupideak zabaldu genituenean, bala bat Anwar-ren saiheits-hezur irtenen azpi-azpian sarturik zegoela ulertu genuen. Iluntasunean, tristurak goibelduriko begiak ikarazko errezel batek hartu zituen eta lehenengo aldiz jabetu nintzen haien sentiberatasun goiztiarrez eta taldekide bat gehiago, arduragabe sentitu nintzen. Begitarte izukaitzek Anwar-ren errealitatea populatzen zuten, haren barne-egoera monitoreen bidez kontrolatuz; eta arnasa berreskuratu zuenean, bular puztuek lasaitu ederra hartu zuten. Eman baino gehiago babesa jaso beharrean, hazi bidean zituzten burezurrek noizbait gizaki helduarenak izango ziren espresioak islatzen zituzten, eta haiekiko neukan axola desagertu zitzaidan.

Filma bat-batean eta irmotasunez amaitu zenean, bistan zen bisitariak nahigabeturik zeudela. Gorputza lerdendu nuen, harrera-ekitaldiko exodoan haiekin elkartzeko asmoz; baina ez zen inongo mugimendurik gertatu. Ikasle-talde ondo metatuak hantxe iraun zuen, galeriako eserleku-ilara deseroso hartan eserita, eta diskoak makina barruan burrunbatzeari utzi zion, proiektagailua laukizuzen urdin-urdin bat jaurtitzeko aukeraz

baliatzen zen bitartean. Foku-luzerak aldatuz haietan murgiltzeko, Jaiman-en eta Klein-en artean erabakitzen saiatu nintzen. Nire eserlekuan atzera eginik, burua galeriako hormaren aurka pausatu nuen, hurrengo gertaeren zain, Turrel-engan pentsatuz.

Minutu gutxiren buruan, aurreko eserleku-ilaran eseritako gazteak euren eserlekuetan biratu ziren atzeko eserleku-ilareei begira jartzeko. Erdian eseritako neska bat izan zen mintzatzen lehena, errezel moduko ile-adats distiratsuaren azpiko bere hazpegi burlazkoekin. “Eta orain, zer?”, galdegin zien bere lagunei, argi urdinpean distiratsu.

Gainerakoetako batzuek buruaz baietsi zuten, hasieran uzkur agertu arren; gero, mutil bat eta neska bat aldi berean mintzatzen hasi ziren, batak bestea baliogabetzen zuen ahoskera berbera erabiliz. Jendetasunezko borrokatxo baten ostean, neskak mintzatzea lortu zuen: “Zerbait egin beharra daukagu laguntzeko”. Haren hitzetan ez zegoen inongo zalantzarik eta gainerako guztiak ados agertu ziren. “Zergatik ez goaz hara mutikoaren bila?”, lehiatu zen esatera hitza eman zion mutila.

Haren proposamenak gehienen onespena erdietsi zuen eta bertan ziren batzuek logistika-ekarpena egin eta euren asmoetan lagunduko lieketen pertsona-izenak trukatu zituzten. Anwar aurkitu nahi zuten; harekin hitz egin eta bera sendatu nahi zuten. Areago baina, edukiko zuen banako sufrimendua arintzera ez zuten mugatu nahi euren ahalegina. Haren zoritxarra berriro beste inoiz gerta ez zedin edozer egiteko prest, guztiorren azken arrazoia ahalbidetzen zuen bidegabekeriari gogor heldu beharko ziotela ulertu zuten garbi baino garbiago. Horren ostean izan zen eztabaidan (gaztaroko grinaz blaituan) sekula ez zuten zalantzarik txikiena ere agertu beraien presentzia ezdeusaz geroztik markatuko zuten diferentziaz.

Isil eta ezagutezin, haien epifaniaren testuinguruaren barruan asimilatua izan nintzen, haien eztabaida kokatu zuen urdin urtsua bezain neutral. Baina ni oso urrun nengoen azaldu nituen iritziei buruz neutrala izatetik. Haiei entzun ahala, gero eta garbiago ikusi nuen galerian jasotako irakaspena berez eskolan jaso zezakeen beste edozein irakaspen bezain garrantzitsua izan zela. Filma beste bitartekaririk gabe, egia subjektibo batzuk azaldu zitzaizkien eta euren gaitasun kritikoak zorrotz zituzten. Bortxa formal oroz gaindi, arte-lan honek begiak irekiarazi zizkien euren munduaz harantzago. Apaltasuna eta enpatia irakatsi zizkien, eta zerbait egitera bultzatu zituen. Baldin itxaropenik badago, pentsatu nuen, gazteengan dago.

REBECCA GORDON NESBITT. Londresen nazioarteko trukaketarako gunera modura salon3 (Maria Lind-ekin eta Hans Ulrich Obrist-ekin batera) sortu ondoren, Rebecca Gordon Nesbitt “Nordic Institute for Contemporary Art”-eko zuzendari izendatu zuten Helsinkin; han, hainbat proiektu bultzatu zituen Europa Iparraldeko, Ingalaterrako eta Irlandako hainbat artistarekin. “Mundu mailako ordena berriaz” gero eta kezkatuago, zuzeneko parte-hartzea baztertu zuen eta arte-munduaren azpiegitura eta dagozkion erakundeak eta ekonomiak ikertzeari ekin zion. Ikerketa horiekin batera, hainbat arte-katalogotan (izengoiti baten pean) eta hainbat literatur argitalpenetan plazaratutako fikziozko arte-multzo bat garatu du.

CC

Artikulu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago. Testuak nahiz itzulpenak kopianatu, banatu eta jende aurrean erakuts ditzakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu. Lizentzia osorik irakurri nahi baduzu:

http://creativecommons.org/license/index_html?lang=eu